

Donostian, 2022ko otsailaren 4an

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

LURZORU KUTSATUEI BURUZKO BATZORDE EZ-IRAUNKORRAREN GAINEKO PROPOSAMEN BAT EGITEA UDALBATZARI

Elkarrekin Donostia, EH Bildu eta PP udal taldeen bozeramaileek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 90. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Altzako kiroldegi berriaren inguruan amiantoz kutsatutako lurren gaineko batzorde ez-iraunkorraren xedea aldatzeko PROPOSAMENA aurkeztu nahi diote UDALBATZARI.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako kiroldegi berriaren inguruan amiantoz kutsatutako lurrak izatearen gaineko batzorde ez-iraunkorra sortu zenean, eraikin berria egiten hasi baino lehen toki hartako lurrak zenbateraino kutsatuta ziren ikusi eta toki hura berreskuratzeko sortu zen. Hala ere, errealitateak erakutsi du amiantoz kutsatutako lurrak kiroldegiaren ingurua ez ezik, askoz toki gehiago ere hartzen duela, eta horren froga da besteak beste Felix Irazon (Sasuategi bidearen ondoan) eta Marrusko baratze inguruan ere azaltzea material hori.

Hala, batzorde ez-iraunkorrek aurreko ostiralean, urtarrilaren 28an, izandako bileran, batzordeko askok iritzi genion batzordearen xedea zabaldu beharra zegoela, kiroldegiaren inguruko tokiak ez eze, handik kanpora diren beste batzuk ere lantzen eta aztertzen ari ginela eta.

Hori dela eta, guk uste dugu, osasunerako hain arriskutsuak diren materialak azaltzearen dimentsioak behar bezala tratatzeko, derrigorra dela batzordearen xedea aldatu eta aztertu eta jarraipena egin beharreko lurraldearen luze-zabalak handitzea.

Horrenbestez, Udaltzaren Organo Araudiaren 90. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta hauxe da Udaltzari egin nahi diogun proposamena:

PROPOSAMENA

1. Udaltzaren Osoko Bilkurak erabaki du orain arte 'Altzako kiroldegi berriaren inguruan amiantoz kutsatutako lurrak izatearen gaineko batzorde ez-iraunkorra' izena duen batzordeari izena aldatu eta 'Amiantoz kutsatutako lurrak izatearen gaineko batzorde ez-iraunkorra' jartzea, kutsatuta diren eta/edo kutsatuta izan daitezkeen hiriko tokien jarraipen egokia egin ahal izateko.

Sinatua: Aitzole Araneta

Reyes Carrere Zabala,

Borja Corominas Fisas

Elkarrekin Donostiaren bozeramailea

EH Bilduren bozeramailea

PP taldearen bozeramailea